

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#). [Onartu](#)

GAUR | 2016-12-19

Nork: [olatz mitxelena](#) -Abe 15, 2016

SAGARDOGILEEK ERE ITSASORATU NAHI DUTE



Ainara Otaño, Petritegi sagardotegiko gerentea, Xabier Agote, Albaolako Presidentea eta Gabriel Lizeaga, Lizeaga sagardotegiaren jabea. Argazkia: Mendi Urruzuno.

Poliki baina etenik gabe handitzen ari da San Juan baleontziaren [babesleen zerrenda](#). Oraingoan Petritegi eta Lizeaga sagardotegiek eman diote babesa Albaolaren egitasmoari, belaontziaren aurreko belaren berga babestuz.

Albaolak azaldu duenez, aurreko bela XVI. eta XVII. mendean erabili zen batez ere. Poparian joateko oso aproposa zela gaineratu dute, "itsasontzien alboetatik eta beste belen azpitik korritzen zuen haizea hartzeko". Ontziaren aurretik tira egiten zuenez, norabideari eusten laguntzen zion lemazainari.


Bela hori zabaltzeko bergak 8,80 metro neurtuko ditu -baleontzia beraren zabalera baino handiagoa izango da-, eta 26 zentimetrotako lodiera izango du erdian.

Elkarlan sendoa

Albaola Elkartea eta Petritegi eta Lizeaga sagardotegiak aspaldidanik ari dira elkarlanean. Historia eta ondarea berreskuratzeko elkartu ziren, eta bide horretan, sagardoarekin egin dute topo.

Sagardoa, urte askoan, euskal baleazaleen edaria izan zen. Arrantzaleek Ternuara eramaten zuten sagardoa, 4 eta 6 hilabete artean irauten zuen kosteretara. Sagardo kopuru handiak garraiatzen zituzten, eta horrek, sagardoa modu industrial batean ekoizten hastea ekarri zuen.

Proiektu bat baino gehiago landu dituzte Albaolak eta sagardotegiek elkarlanean, besteak beste, garai batean sagardoa Astigarragatik Donostiara nola garraiatzen zen erakusteko. Sagardotegien enkarguz, ala bat eraiki zuten Albaolako arotzek, ondoren, sagardo kupelak Urumeatik garraiatzeko, garai batean bezala.



AKORDIORAKO ZIRRIKITURIK EZ

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



Albaolak IrriSarri Landeko txondorra pizt ...

Nork: [asier perez-karkamo](#) - Abe 10, 2016

■ Kultura



Albaolak programazio berezia prestatu du ...

Nork: [olatz mitxelena](#) - Abe 5, 2016

■ Kultura



'Galera' itsasoan murgilduta a ...

Nork: [ikerne zarate](#) - Aza 30, 2016

■ Kultura




Skakeitan, itsas kultur faktorian

Nork: [olatz mitxelena](#) - Aza 29, 2016

■ Kultura

Albiste irakurrienak



AKORDIORAKO ZIRRIKITURIK EZ

AINARA OTAÑO ALBAOLA GABRIEL LIZEAGA LIZEAGA PETRITEGI SAGARDOA XABIER AGOTE



OLATZ MITXELENA

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code *

BIDALI IRUZKINA

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

© Oartzualdeko Hedabideak S.L. • Santa Klara kalea, 22, Errenteria-Orereta 20100 - Tel.: 943-34 03 30 - E-posta: oarsobidasoa@hitza.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Elusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco



WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

